


EUSKAL JAIAK

ORDIZIA

LEHIAKETEN
OINARRI-
ARAUAK

IRAILAK 5



azoka
ordizia


Ordiziako Udala

 orkli


Euzko Muntzaritza
Euzko Legea


Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Guipúzcoa





hazi
GIPUZKOA


kutxa

FRUITU ETA BARAZKI LEHIAKETA-ERAKUSKETA

Lehiaketan oinarri-arauak

Lehiaketa-erakusketan parte hartzeko gonbidapena jaso beharko da.

Lehiaketa-erakusketa Joxe Migel Barandiaran Plazan egingo da; Udala arduratuko da behar diren mahai eta saltokiak jartzeaz.

Goizeko 7etarako produktuak jartzen hasteko moduan izango dira ekoizleak, kontutan izanik, 8:30etarako dena jarrita egon beharko dela.

Epaimahaikoek epaia eman arte (10:30 aldera) ezingo da salmentarekin hasi eta 14:00etatik aurrera has daiteke saltokia jasotzen.

Bakarrik norberak ekoiztutako produktuak erakutsi daitezke. Beharrezkoa balitz, hori egiaztatu egingo da eta baldintza betetzen ez bada, jasotako guztia itzuli egin beharko du partaideak eta urtebetean ezin izango du berriro parte hartu.

Saltokiek bete beharreko baldintzak:

- Barazkiak: gutxienez 8 mota edota barietate desberdin aurkeztu beharko dira; bakoitzetik 4 kilo edo 4 dozena gutxienez, saltzeko eraren arabera.
- Fruituak: gutxienez 8 mota edota barietate desberdin ekarri beharko dira; bakoitzetik 4 kilo gutxienez.

- Sariak ematerakoan kontutan hartuko direnak:
Kalitatea: osasun-egoera, heldutasuna, salmentarako neurri egokia izatea...
Kopurua: aurkezten diren mota eta barietateak.
Aurkezpena: produktu bakoitzak bere izena eramatea, erabiltzen diren osagarriak, saltokiaren itxura orokorra...

Fruitu eta barazki atal bakoitzean, honako sariak emango dira:

1. saria: 500 €
2. saria: 400 €
3. saria: 300 €
4. saria: 200 €

Gipuzkoatik kanpoko partaideek aparteko sariak jasoko dituzte:

1. saria: 500 €
2. saria: 400 €

Horrez gain, partaide guztiei 30 € / metro karratuko emango zaie, dieta gisa.

Sariak Jose Migel Barandiaran Plazan emango dira, eguerdiko 12:00etan.

Dieta kobratzeko, berriz, Udaletxera jo beharko da, Kontu-hartzaitzara.
(11:00-13:00 h)

EUSKAL OILOAREN XXXVII. ERAKUSLEHIAKETA

FERNANDO OROZKO XV. MEMORIALA

1.-Euskal Arrazako oilar eta oiloak parte har dezakete lehiaketan. EUSKAL OILOAREN bost barietate daude: MARRADUNA, GORRIA, BELTZA, ZILARRA ETA LEPASOILA.

2.-Lote bakoitzean OILO BAT eta OILAR BAT ekarriko dira.

3.-Ez da onartuko 2 lote baino gehiago pertsona bakoitzeko.

4.-Hegaztiak OSASUNTU eta GARBI ekarri beharko dira.

5.-Hegaztiak gutxienez 5 hilabeteko adina izan beharko dute, bestela deskalifikatuak izango dira.

6.-Euskal Oiloaren gutxienezko standarrak betetzen ez dituzten hegaztiak deskalifikatuak izango dira.

7.-Hegaztiak goizeko 8:30ak baino lehen ekarri beharko dira, eta arratsaldeko 13:30etatik aurrera eraman daitezke. Hegaztiak ikusgai jarri ahal izateko lote bakoitzaren titularrek bere NAN aurkeztuko beharko du.

8.-Lehiaketan parte hartzeko deitu 943882290 telefonora, abuztuaren 2tik irailaren 3ra arte, astelehenetik ostiralera eta goizeko 9:00etatik 13:00ak arte. Izen ematea, lehiaketa egunean bertan egin daiteke.

9.-Lehiaketa Goen Plaza egingo da.

10.-Behin epaileek emaitzen berri ematen dutenean, hegaztiak saldu daitezke, baina ezingo dira esandako ordua baino lehen kendu.

11.-Lehiaketan parte hartu ahal izateko, goian adierazitako puntuak bete beharko dira.

SARIAK:

Sailik onenarentzat: 210€

Bigarrenarentzat: 150€

"BELTZA" motako hegazti onenarentzat: 100€

"GORRIA" motako hegazti onenarentzat: 100€

"LEPASOILA" motako hegazti onenarentzat: 100€

"MARRADUNA" motako hegazti onenarentzat: 100€

"ZILARRA" motako hegazti onenarentzat: 100€

Goierriko sailik onenarentzat: 125€

Sariak **derrigorrez** saritutako loteen titularrek jaso beharko dituzte.

Deskalifikatutako hegaztiak ez dute loteko 25€ kobratuko. 25 euroko dietak kobratzeko, lotearen titularrek KUTXAN bere NAN aurkeztu beharko du.

PERRETXIKU ERAKUSKETA

- Erakusketa Jose Migel Barandiaran Plazan egingo da.

-Sariak emateko honako hauek hartuko dira kontutan:

-Kalitatea: tamaina, egoera.

-Kantitatea:erakusgai dauden mota kopurua.

-Aurkezpena: bakoitza bere izenarekin azaltzea.

-Aurkeztutako multzo onenei honako sari hauek emango zaizkie:

1. saria: 300€ - 2. saria: 250€ - 3. saria: 200€

GIPUZKOAKO PIRENAIKA ARRAZAKO GANADU TXAPELKETA

PIRENAIKA arrazako ganadu lehiaketa izango da Ordiziakoa. Ez da beste arrazarik onartuko. Ganaduzaleak, ordea, libre da Gipuzkoako edozein herritakoak izatea. Era berean, esan dezagun Gipuzkoan ez dela beste lehiaketarik izango pirenaika arrazako ganaduaren artekorik. Tolosan ere izango da, baina beste arraza batzuetako ganadua ere eraman daiteke, pirenaikaz gainera, hango lehiaketara.

Lehiaketarekin batera, pirenaika arrazako txahal subasta ere izango da. Subastak txahalak saltzea du helburu, eta, hala, Ordiziako Udalak diruz lagunduko dio subastan txahalen bat erosten duenari.

Lehiaketaren eta subastaren asmoa pirenaika arrazari bultzada bat ematea da. Pirenaika arrazako ganadua, izan ere, oso ganadu egokia da haragitarako eta larrerako, eta oso samur jartzen da hemengo geografi-klimateara, ez baita alperrik hemen bertan, gure mendietan, sortutako ganadua.

Ordiziako Udalak gure inguruko gauzarik onenak herrira ekartzeko sentsibilitate handia izateari esker, gustora lagunduko du bertako PIRENAIKA ganadu arraza aurrera ateratzen. Izan ere, Foru Aldundiak, KUTXAK eta HEBEK ere bai baitute beren parteak.

Gainera, urtero izango da Ordizian pirenaika arrazako ganaduaren kalitatea zenbat hobetu den ikusteko aukera, geroz eta hobia da arraza horren kalitatea eta; batez ere etengabe ari delako genetika hobetzen Gipuzkoako Ganaduzaleen Elkarteak (HEBE), Euskadiko Federakuntza (EPIFE) eta Konfederakuntza (CONASPI) lagun dituela.

Lehiaketan ganaduaren morfologiari begiratuko zaio, batez ere arrazaren berezitasunei. Epaimahaiak emango du sailkapena, eta ez da hark hartutako erabakirik aldatzerik izango.

7 lehenengo sari (garaikurra eta 100 €) eta 7 bigarrenengo (garaikurra eta 60 €) izango dira, guztiak ere emeentzat. Hona hemen sailak:

1. saila: 12-18 hilabete bitarteko bigantxak.
2. saila: 18-24 hilabete bitarteko bigantxak.
3. saila: 24-30 hilabete bitarteko bigantxak.
4. saila: 30-42 hilabete bitarteko behiak.
5. saila: 42-60 hilabete bitarteko behiak.
6. saila: 60 eta 96 hilabete bitarteko behiak.

7. saila: 96 hilabete baino gehiagoko behiak.

Intseminazio eme hoberenarentzat saria.

Abelburu hoberenarentzat saria.

Zezenak ere izango dira, baina ikusgai besterik ez.

Lehiaketan parte hartu nahi duenak, bestetik, goizeko 8ak baino lehen ekarri behar du ganadua.

Seguru da egunak arrakasta izatea; izan ere, 80 ganadu-buru baino gehiago izango dira lehiaketan, Gipuzkoa guztiokak izango dira eta subasta ere izango baita.